

Igor Astarloa:

"Espainian ez dago konpetentziarik"


17 urte bakarrik ditu eta dagoeneko denetarik irabazi du bizikletaren gainean, bere hurrengo helburua Munduko Txapelketan zeozer handia egitea delarik. Halere ez da merezi duen bezain ezagutua Ermua mailan, agian, "Santa Anatik jaisten naizen bakoitzean taberna berri bat zabaltzen dute"-lako.

-Noiz izan zenuen lehenengo bizikleta eta zelan hasi zinen txirrindularitzan?

-Lehenengo bizikleta erosi zidaten gurasoek, hiru urtekin edo, lehenengoa triziklo bat zen, ondo gogoratzen naiz gainera; gero, lehen benetako bizikleta bost urtekin edo, eta han ikasi nuen errubera txikiekin. Gero jada, 12 urtekin erosi zidaten lehen txirrindulako bizikleta eta Mallabiko Txirrindulari Elkartean hasi nintzen. Orain dala bi urte (15 urtekin), hasi nintzan jada jubilenen mailan, Iturriagako ekipoa, Durangoko ekipo batean.

-12 urterekin, infantiletan jada korritzen zenuen?

-Bai, ez nuen karrera bat be irabazi baina bigarren eta hirugarren geratu bai. "Eske" infantil bi urte dira, lehen urtekoa eta bigarren urtekoa. Jada



Aurpegi hau jende askok ezagutuko du aurrerantzean.

bigarren urtean lehenengo karrera irabazi nuen eta azkenengoa, Bilbon, Gran Vian, eta gero jada kadete mailan hasi nintzen. Lehen urteko eta bigarren urteko kadete be daude, 14-15 urtekin. Ez nuen karrera bat bez irabazi lehenengo urte-

an baina beno, esan behar dena da infantiletan dala zirkuitua eta kadetetan jada kaminuan, hirugarren izan nuen posturik onena; gero bigarren urteko kadetetan hasi nintzen ondo ibiltzen, hiru karrera irabazi nituen ta bat izan zen

Bizkaiko txapelketa, rutan. Gero Espainiako azpitxapel-duna pistan eta urte horretan bertan jarraipen edo pertsekuzio errekorra, pistan-be bai.

Lehenengo urteko jubenetan, 16 urtekin, hiru karrera irabazi nituen kaminuan, ziklo-krosseko Espainiako txapelduna, Bizkaikoa, Euskadikoan bigarren ta pistako Euskadiko txapelduna, taldekako pertsekuzioan. Joan dan igandean (dagoeneko jubenetako bigarren urtean, urtarrilaren 9an) ziklo-krosseko Espainiako txapelduna eta aurrekuan Bizkaiko txapelduna.

-Eta bigarrena Euskadikoan.

-Bai baina suerte txarra euki nuen, Espainiako txapelketan hirugarren ein zebanakin noian, eta errekorridua markatzen duen zinttakin engantxatu nintzan manillarraz eta behera joan nintzan, suerte txarra...

-Laister munduko txapelketa duzu, ezta?

-Bai, urtarrilaren 30ean, Belgikan.

-Eta hor ze egiteko itxaropen duzu? iaz korritu zenuen?

-Bai, Italian, Corvan. Suerte txarra izan genuen, selekzi-

Quetzal *Opari denda*
Goienkale
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak,
musika aparatoak...
prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

no guztiak. Bostgarren nindon, eta beste bat, Ramirez, zortzigarren; euki genduan kriston folloia, bata bestearekin engantxatu, ni holandes

**"Munduko
 txapelketan nire
 asmoa 15 lehenen
 artean sartzea da"**

batekin, eta horregaz erruberia apurtu neban; kontroleraino joan behar izan nuen bizikleta bizkarrean nuela.

-Orduan, suerte txarrik ez badago, zeozer on egiteko asmoa duzu.

-Hori be ez dakigu, ze ez gendun iaz karrera aurrean bukatu, gero 29.a ein neban, baina aurtan nere asmoa 15 lehenen artean sartzea da. Lehenengo asteen, asteartetik domekara arte holandes batekin egon gara, Van Del Verek, eta horrek esaten du 10 lehenengotan sartzeko moduan nagoela, baina beno, nik hainbeste ez dut uste.

-Beste igandean, nahiko erraz nagusitu zinen Espainia-koan, bigarrenari ia minutu bat kenduz, eta gero lehen hamarretatik bederatzik euskaldunak ziren, zer dela eta nagusitasun hori, zer pasatzen da?

-Ez dakit, beti gertatzen da berdina, beste urtean be hamar lehenetatik zazpi edo euskaldunak ginen.

-Oso onak zarete edo ez

dago konpetentziarik?

-Ez dago konpetentziarik. Uste duzu asko zabiltzala eta kanpora joaten zara ta kriston aldea dago. Gainera uste dut aurtan beste urtean baino errazago irabazi dudala, eta beste urtean bigarren ein ebanak aurtan be bigarren ein dau.

-Errutan zelan ibili zara?

-Kaminuan hiru karrera irabazi ditut; gure ekipoa (Ciclos Iturriaga) Madrileko bueltara joan zen. Abuztuan izan neban "anemia de hierro", kristona eh!. Egon nintzen hilabete erdi bizikleta ikutu barik. Euki genduan hor taldekako erlojupeko Bizkaiko txapelketa, irabazi ein genduan, ta "La ruta del vino", eta gure ekipoko Praderak irabazi zuen, baina nik ez neban korridu izan anemiagatik. Azkenean hiru karrera irabazi nituan, lau bider bigarren ta gainera jubenil mailan lehenengo urtean. Aurtan jada dena eman behar da, afizionatu ekipo on batean sartzeko.

-Taldez aparte badaukazu beste laguntzarik?

-Ez, gehien bat nire lehen-gusua, nire direktorea da, Elgetako Angel Mari Ibarluzea. Beragatik hasi nintzen bizikletan, bera txirrindularia zan. Esan zidan hasteko ta "aber" zer moduz ta berak erosi zidan lehenengo kaminuko bizikleta.

**"Espainian ez dago konpetentziarik.
 Uste duzu asko zabiltzala eta kanpora
 joaten zara ta kriston aldea dago"**



Igor bere tailerrean; leku gutxi baina denetarik dauka.

Txirrindularitza utzi zuenetik berakin nago urte guzti hauek, berak kontrolatzen dit dana. Materiala be berak erosten dit, eta gero be bai badago Ciclos Iturriaga denda bat eta han zeozer apurtzen baduzu ekipo-

koei debalde ematen digu.

-Ermua mailan zelan ikusten duzu txirrindularitza, ze lehenengo atera zen Horrillo, gero zeu atera zara, Horrillo baino altuago iritsiko omen zarena. Badago kanterarik Ermuan, holako bi ateratzeko bi urtetan?

-"Eske" adibidez ni ez ninduten ezagutzen ezebez. "Derrepente" lortzen duzu ezer eta jendeak animatzen dizu; San-

HARATEGIA - URDAITEGIA
DANOTZ

* TXERRI OKELA
 * OILASKOAK
 * SAGARDOA TA TXAKOLINA

Valdespina, 9

Kopi - Fax

Kopistegia, Papertegia

Torrekuia, z/g. 48260

Tfnoa. eta Faxes: (943) 17 42 89

ERMUA

tanderren nire kale osoa zegoen han animatzen, eta nahiko ospetsu egiten zara gero, baina jubenil mailan ospetsu izan

joan balitz (orain Baquen dago), bost karrera gutxienez irabaziko zituela.

lan ikusten duzu Euskadi Taldea? Ona izango da euskal txirrindulari afizionatuentzat, ezta?

-Gehien bat afizionatu mailan dabilzanak gehiago pasatzeko; igoal, 500 badaude lau ziur pasatuko dira. Baina nik uste dut horrek urte asko ez duela iraungo, ez dagoelako jende handirik eta ekipoa ez da oso garrantzitsua, nere ustez. Zeozer egiteko moduan badaude, baina orain Banesto eta Amaya elkartu dira adibi-

dez, eta ezin dira konparatu talde batzuk bestekin, baina ea suertea duten.

-Zein da zure idoloa, zeinen altuerara iritsi nahi duzu?

-Kaminuan estranjero bat gustatzen zait, Greg Lemond, jada zahartuta da baina beno. Hemengoa Mikel Zarrabeitia, oso gaztea da baina uste dut asko igoko dela. Mountain-bike eta ziklo-krossean suizo bat, Thomas Friskener.

-Nahiko anarkikoa ei zara entrenamenduetan.

-Nik entrenatu eta bizikleta hartu, ez didate sinesten gehienek eh!, egiten du gustatzen zaidalako, ez beste jende baten moduan, esaten diotela, "ez dakit zenbat entrenatu behar duzu"; egunero entrenatu behar dute igoal kilometro mordo bat edo bi ordu; nik, gogoia etortzen zaidanean ba benga, joan mendira...

-Agian epe luzera hori ez da onuragarria izango.

-"Honbre", hori da jubenil mailan. Gero afizionatu mailan profesionalera pasatzeko, hor asko dakien jendea dago eta beno, apur bat kaso egin behar zaio.

-Hemendik aurrera noraino ailegatzeko asmoa?

-Txirrindulari baten helmuga profesionalera pasatzea da.

-Eta Tourra irabaztea.

-Hori profesionalera iristen zarenean beste pauso bat da.

Iosu Etxaniz

"Jubeniletan ospetsu izan edo ez berdin da, ze nik hemendik urrengo urtera igoal ez dot eitten piperrik bez"

edo ez berdin da, ze nik hemendik urrengo urtera igoal ez dot eitten piperrik bez.

Askio zaindu behar zara bai, ez duzu erre behar, ez alkoholik hartu behar bez, gauean lasai lasai, beno urtean behin juergita bat egin, baina... sakrifizio handia. Kanteira? tira, ni txirrindularitza mailan ez nenbilenean nire kaleko batzu zebiltzaten eta esaten zidaten apuntatzeko, sei urte nituela edo, eta zioten autobusetan joaten zirela karretara ze kriston jende pila ziren, eta orain ez daude hainbeste baina...

-Baina bi onak.

-Bai, bi onak baina ea ze pasatzen dan.

-Horri zelan ikusten duzu?

-Aurten ekipo barik ibili da, beno ekipo eduki du, baina bera ikasten oso ondo dabil, "Ingenieria minera" egiten eta ekipo batera bazoaz ikasketak piskat aparte laga behar dituzu, eta berak nahi zuen jarraitzea. Egin zuten Marino Lejarretaren anaiarekin, Ismaelekin, berba egin, eta berak egin zuen ekipo bat, Ezak, "txapuz bat". Nik uste dut ekipo batera

-Iaz esan leike Horriloren urtea izan zela, aurten zurea izan leike?



Pedalen gainean edozer egiteko prest.

-Benoi bai, iaz harrituta utzi ninduen zeren jubenil mailan lehenengo urtean lau karrera bukatu zituen bakarrik, 60 karreretatik lau eta iaz oso ondo ibili zen.

-Laister afizionatua izango zara, eta hortik begiratuta ze-

"Ez dut uste Euskadi taldeak asko iraungo duenik"

**ZARAUZTARRA
JATETXEA**

**LEHEN, ORAIN
ETA BETI**

- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana



MUGA



Kirolak

SEXTO CENTENARIO, n.º 7
Teléfono: 17 64 77
ERMUA